


Aurrerapausoak antibiral bat lortzeko bidean

COVID-19a tratatzeko antibiral bat garatzen ari da [Nerea Irigoyen Vergararen](#) lantaldea. Azaldu dutenez, antibiralak ez dio birusari eragiten, baizik eta birusak infektatutako zelulei. Izan ere, ikusi dute ezen, SARS-CoV-2ak zelulak infektatzen dituenean, birusari erreplikatzeko ahalmena ematen dion seinale bat aktibatzen dutela zelula infektatuek (UPR). Ikertzaileek seinale hori desaktibatzea lortu dute; horrela, birusak ez dauka erreplikaterik, eta infekzioa ezin da beste zelula batzuetara hedatu.

Seinalea desaktibatzeke, bi konposatu erabili dituzte elkarrekin: Ceapin-A7 eta KIRA8. Horrela, birusaren erreplikazioa % 99,5 jaisten da; konposatu bakarra erabilita baino askoz ere gehiago.



SARS-CoV-2 birusak (laranjak), laborategian hazitako zeluletatik ateratzen (berdez). ARG.: NIAID/CC-BY.

Beste birus batzuek ere seinale bera pizten dutenez, ikertzaileek uste dute litekeena dela haien aurka ere eraginkorra izatea, baita mekanismo hori oinarrian duten beste gaitz batzuetarako ere, hala nola biriketako fibrosia eta asaldua neurologikoak tratatzeko. Oraingoz, zelula-kulturretan egin dituzte entseguak, eta hurrengo pausoa saguetan probatzea izango da. [PLOS Pathogens aldizkarian argitaratu dute ikerketa.](#) ●

Emakume ikertzaileak: asmatu bai, patentatu ez



ARG.: Melbourneko Unibertsitatea.

Emakumez osatutako ikertzaile-taldeek gainerakoek baino joera handiagoa dute emakumeen onurarako aurrerapenak sortzeko, baina patente gutxiago lortzen dituzte. Hori frogatu dute Nafarroako Unibertsitateko eta Kanadako eta AEBko bi unibertsitateko ikertzaileek, 1976tik 2010era patentatzeko asmoz aurkeztutako 440.000 asmakizun biomediko aztertuta.

Science aldizkarian argitaratu dute ikerketa, eta, datuen arabera, lantalde osoa emakumeek osatzen bazuten, denak gizonak izanda baino % 35 gehiagotan aurkezten zituzten emakumeen osasunerako asmakizunak; taldea mistoa bazen, berriz, % 18ra jaisten zen aldea. Alabaina, emakumeak ez ziren patenteen % 25ean baino agertzen.

Egileen esanean, ikerketak agerian jarri du zenbat onura geratzen diren jaso gabe, emakume asmakizunak aukerak ukatzen zaizkielako. Horrekin batera, iradoki dute emakume asmakizunak zer zailtasun izaten dituzten ezagutzeak konponbidea jartzeko balio beharko lukeela. ●



[Albiste gehiago, webgunean](#)